

etxerat

euskal errepresaliatu politikoen senide eta lagunak

familiares y allegados de represaliados políticos vascos

Parents et amis de prisonniers et réfugiés politiques basques

hilabetekaria

2 0 1 3 m a r t x o a



aurkibidea

martxoa

3

sakabanaketa

5

osasun eskubidea

6

salbuespen neurriak

8

espetxeetan

9

senide eta lagunak

12

askatasunak, espetxeratzeak,
eta leku aldatzeak

14

hilabeteko gaia

15

Eta...nola ibili senideok ere egi inklusibo
baterantz?

etxerat

20

eranskinak

23

martxoa

Martxoaren 20an, begirada guztiak Estrasburgora zuzentzen ziren, eta gure egutegian bereziki seinalatutako eguna zen. Baina, zoritxarrez bada hil honetako beste egun bat espero ga-bean, minez azpimarratu behar izan duguna: martxoaren 14an, **Anjel Figeroa** hil zen bere gaixotasun larri eta sendaezinagatik zegokion askatasuna eskuratu aurretik, nahiz eta 2008tik espetxeratze arinduan zegoen arrazoi horrexegatik. Bigarrenez, salbuespeneko espetxe politikak familia bereko beste kide bat galtzea eragin du. Izan ere, martxoaren 14 batean, zoritxarreko kasualitate, Anjelen amona, **Antxoni Fernandez**, hil zen Alcala Meco espetxera bera bisitatzera zihoala izandako istripu batean.

598

Angelen eta Antxoniren heriotzaren artean dauden 16 urte luzeek erakusten dute bizi dugun errealitate lazgarria. Euskal errepresaliatu politikoek eta guk geu kez dugulako salbuespeneko espetxe politikak eragiten dituen ondorio gogorren errealitate abesterik ezagutzen. Eta erre-

alitate hau bizi izan dugu 16 urte hauena urreko urteetan, 16 urte hauetan, eta egun, Euskal Herriak oztopo ugari gaindituz bakera iristea helburu duen garai berri hauetan. Nazioarteko adituak Madrili eta Parisi **espetxe politikan bakea sendotzeko aurrera pausoak** emateko eskatzen dieten bitartean, bi estatuek bide horren aurka dauden pausuak ematen dituzte. Horren adibide, hartutako erabaki politiko baten ondorioz gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoek kopurua inondik inora ez jaistea. Baina, orain **Ibon Fernandez Iradiren** egoeraren larritasuna ikusita, 14 izatera pasa dira zerrenda horretako izen-abizenak. **Xabier Lopez Peña** presoak ere ospitaleratua jarraitzen du martxoaren 11tik, Parisen egin behar zioten ebakuntza konplexu bat ez zelako espero bezain ondoa tera. Eta egoera larria izan arren, bere senideek eta abokatuek ez zuten ez bere egoeraren

berri izan, ez eta non aurkitzen zen jakin martxoaren 19ra arte. Euskal preso politiko baten lagunak bisitatik bueltan zetozela izandako istripuak astebururo senideok bizi behari zaten dugun erruleta errusiarrean arreta jartzea ere eragin du. **Sakabanaketak aurten eragindako bigarren istripu** aizan da honakoa. Beste hiru senidek, berriz, **1800 kilometrotako** bidaia bate gin zuten etxera **bisita burutu gabe** itzuli behar izateko. Eta gauza bera gertatu zitzaion **1300 egin behar izan zituen** senide bati ere. Honek argi erakusten duelarik arriskuz betetako bidaia luze eta amaigabe hauek ere ez digutela bermatzen gure senide eta lagunak ikusi ahal izatea. Sevillako espetxean **Arkaitz Bellonek** funtzionarioen jipoi gogorra jasan behar izan zuen. Eta espetxe honetako nahiz beste espetxeetako **isolamenduak** euskal preso politikoak psikikoki mintzeko helburu abesterik ez du.

Martxoaren 20 bereziki azpimarratua zegoen Ines del Rioren egutegian, baina baita bere senide eta lagunenean, abokatuenean, euskal preso politikoenean eta euren senideenean; eta nola ez, baita estatu espainiarrarenean ere. **Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiko Sala Gorena 197/2006 doktrinaren aurka** emandako erabakiaren aurka Espainiak jarritako helegitea aztertzen hasi zen egun horretan. Helegite honekin Espainiak argi erakutsi du doktrina hau mantendu eta euskal preso politikoei bizi osorako espetxe zigorra aplikatzen jarraitzeko bere nahia, eta jada adierazi du bere gustukoa ez den erabaki bat jasotzen badu ez duela inondik inora betetzeko asmorik.

Guk, senide eta lagunok, espero dugu Estrasburgok baliogabetzea **eskubide urraketa** nabarmena suposatzen duen neurri hau. Eta guk aurrera jarraituko dugu, borrokan, **giza eskubideak pertsonen atxikita daudelako**. Ezin dugu onartu eskubide hauek erabaki politiko batzuegatik baldintzatua egotea, eta gainera hau horrela dela onartuta, bake bidea oztopatu eta mespretxatzea.

sakabanaketa

598 euskal preso politiko 81 espetxetan sakabanatuta daude

- 438 preso espainiar estatuko 45 espetxetan sakabanatuta
- 130 preso frantziar estatuko 32 espetxetan sakabanatuta
- 10 preso Euskal Herriko 3 espetxetan daude
- 4 preso Ingalaterrako espetxe batean
- Preso 1 Ipar Irlandako espetxe batean
- Preso 1 Portugalgo espetxe batean
- Preso 1 etxean preso dago, Italian, Erroman
- 10 preso espetxeratze arinduan, pairatzen dituzten gaixotasunak direla eta
- 3 preso Autunen (Frantzia) Parisen eta Ipar EHan konfinatuak daude

- **86** euskal preso Euskal Herritik **1000 eta 1.100** kilometrotara dauden espetxeetan
- **159** euskal preso Euskal Herritik **800 eta 1.000** kilometrotara dauden espetxeetan
- **135** euskal preso Euskal Herritik **600 eta 800** kilometrotara dauden espetxeetan
- **100** euskal preso Euskal Herritik **400 eta 600** kilometrotara dauden espetxeetan
- **88** euskal preso Euskal Herritik **400** kilometrotara dauden espetxeetan
- **2** euskal preso Euskal Herritik **900** kilometrotara **konfinatuak**
- **7** euskal preso Euskal Herritik urrun dauden 4 herrialdetako espetxeetan

osasun eskubidea

Martxoaren 11n Jaiki Hadi medikuen elkarteak bi preso gaixoren berri eman zuen, Ibon Fernandez Iradi eta Ventura Tomé, hain zuzen ere. Lehenaren kasuan, esklerosi anizkoitza diagnostikatu diote, hau da, gaixotasun sendaezin bat du. Eta Toméren kasuan, Prostatako adenomakartzinoma aurkitu diote; "gradu ertaineko" gisa etiketatua.

14

Ventura Tomé tafallarra, Murcia leko espetxean dago, gaitz honen inguruko frogak egiten dizkioten bitartean. Minbizi guztiek bezalaxe, jarraipen estua behar du bai bere egungo egoe-rari buruzko garapenari dagokionez eta baita gaitzaren balizko okertzea zaintzeko. Oraindik informeak falta zaizkie bere medikuei, baina, kezka sortu die bere gaixotasunak mediku eta senideei.

Ibon Fernandez Iradi lasartearra, Lannemezan espetxean dago eta gaixotasun sendaezin bat duela jakinarazi berri diote.

Gaixotasun larri, sendaezin eta **hondamen fisiko zein psikologiko larria sortzen duen gaitza** da honakoa. Pazientearen autonomia modu garrantzitsuan mugatzen du, bai gaitzaren areagotze progresiboarengatik eta baita bere tratamenduak eskatzen duen jarraipen estuagatik. Eritasun honek berehalako tratamendua eskatzen du. Gaitzaren larritasuna ikusita, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoek zerrendara gehitu dute medikuek, eta ondorioz 14 dira zerrenda horretan dauden presoak. 14 dira ondorioz aske behar luketena. Baliteke, Tomé ere zerrenda honetan egotera pasatzea, baina oraindik ebakuntza eta frogak egin behar dizkiete, eta oraindik behintzat ez dute zerrendan sartu.

Hala ere, Ibon Fernandez eta Ventura Toméren kasuez gain, hilabete honetan jakin izan dugu **Xabier Lopez Peñak** izan duen ospitalizatzearen berri. Xabier Lopez Peña preso ospitaleratua dago martxoaren 11tik. Izan ere, martxoaren 11n, Fleury-Merogis espetxean zegoen eta lehendik zenbait eritasun kardio-baskularra dituen Xabier Lopez Peña euskal preso politikoa Corbeil-Essonnek ospitalera eraman zuten artatua izateko. Zenbait konplikazioaren ostean, martxoaren 13an, Pariseko Pitié-Salpêtrièreko ospitaleko kardiologiako zerbitzura eraman zuten, eta biharamunean ebakuntza egin zioten. Gaur egun, Pitié-

Salpêtrièrako ospitaleko espetxe administrazioaren zerbitzuan aurkitzen da Lopez Peña. Bere egoera konplexua da, eta jarraipen eta tratamendu bereziak izan beharko ditu datozen hilabeteetan. Horregatik bere abokatuek askatasun eskaera egin dute jada. Gainera, martxoaren 11n ospitaleratu zutenetik, martxoaren 19a bitarte senide, lagun eta abokatuek ez dute Lopez Peñaren inongo berririk izan, ez eta ospitalean zegoela jakin ere.

Espetxeratze arinduan aurkitzen zen **Angel Figeroa** preso hilda aurkitu zuten martxoaren 14an, bere etxean. Angelek gaixotasun larri bat pairatzen zuen, eta horregatik 2008an espetxeratze arinduan kaleratu zuten, hau da, preso zegoela hil da.

salbuespen neurriak

Bizi osorako espetxe zigorra Baldintzapeko askatasuna

70

Martxoaren 20an Estrasburgoko Giza eskubideen auzitegia bildu zen, pasa den uz-tailan Auzitegi honek emandako Ines del Rioren ebazpenaren kontra Espainiak jarritako helegitearen inguruan erabaki bat hartzeko. Estrasburgoko epaitegiak, ebazpenaren bidez Ines del Rio aske gelditu behar zuela esan zuen, 197/2006 dotrinaren aplikazioak bere askatasunerako eskubidea urratzen zuelako.

Gure senide eta lagunei bere garaian epaitegiek zigor bat ezarri zieten, **hasiera eta amaiera data zuten zigorrak**. 2006az geroztik, Espainiako Auzitegi Gorenak 197/2006 dotrina aplikatzen du. Eskubidearen kontrakoa izan arren atzeraeraginarekin aplikatzen du, hau da, preso politikoak bizi osorako zigortzen ditu, berez, zigortuak ez zeuden zigor batera, eta ondorioz gu ere zigortuak gara zigor erantsi batera... Ines del Rioren kasuaz gaiz, **beste 91 preso politikori zigorra luzatu diete**, ia 12 urteko luzapenak ere eman direlarik. Hau da 92 euskal preso politikori bizi osorako espetxe zigorra ahalbidetzen duen 197/2006 doktrina ezarri diete, eta 92 hauetatik 70 presok espetxean jarraitzen dute. 197/2006 Dotrina, beraz, gure senideak kolpatzeko eta mendekuaz eta sufrimenduaz baliatzeko beste mekanismo bat besterik ez da. Espetxe politika zehatz baten tresna, giza eskubideen urraketari paso ematen diona.

Bestalde, Jakes Esnal, Frederik Haranburu eta Jon Kepa Parot presoak, Frantzian bizi osorako zigortuak izan dira "perpétuité" neurriaren bidez. Laster espetxean 24. urtea betetzen hasiko dira, nahiz eta baldintzapeko askatasunaren irizpideak bete duela 5 urtetik.

147

Euskal preso politikoei aplikatzen zaien beste salbuespeneko neurri bat da baldintzapeko askatasunaren ukatzea da. 147 euskal preso politikok **baldintzapeko askatasunean aske ego- teko baldintzak betetzen dituzten** arren, preso jarraitzen dute bai estatu espainiarrean eta baita frantziarrean ere. (Preso hauen zerrenda eranskinetan aurki daiteke).

espetxeetan

eskubide urraketak bestelako gertakariak

Isolamendua

Bakartze edo isolamenduaren aplikazio zorrotza euskal preso politikoen be-reizgarri bat da. Isolamendua edo bakartzea egoera oso zehatzetara zuzendu-tako neurria bada ere, espetxe arautegian (zigor puntual gisako neurritzat hartzen dena), gure senide eta lagunen kasuan ohiko edota behin-betiko neu-rri gisa aplikatzen da. Esan bezala, euskal presoek kasuan isolamendua edo mi-tarda maiz ezartzen den zigor bat da. Baina zenbait kasutan presoak agian isolamenduko moduluan egon ez arren bakarrik egoten dira, hau da, beste ki-derik edo euskal preso politikorik gabe egoten dira, eta kasu hauetan bakar-tuak daudela esaten da. Hona hemen momentu honetan Espainiako eta Frantziako espetxeetan bakarturik dauden preso politikoen zerrenda:

Euskal Heria	Zaballa	Txus Martin
Espainiar estatua	Córdoba	Sergio Polo
	Puerto III	Xabier Rey
		Oscar Barreras
Frantziar estatua	Joux La Ville	Marian Aramendi
	Joux La Ville	Julen Eizagirre
	Tarascon	Ibai Sueskun

Muturreko egoerak

Sevilla II espetxea: Bestalde, martxoaren 25ean Sevillan dauden euskal preso politikokoak itxialdi bat burutzen ari ziren euren ziegetan, Xabier Aranburuk Muret Seyssesen bizi behar izan zuen egoera salatzeke. Egoera hau aprobetxatuz, funtzio-narioak Arkaitz Bellon elorriarraren ziegan sartu ziren eta miaketa oso zorrotza egin zioten. Bera ere miatu zuten, ukimenezko miaketa zorrotz bat egin nahi zioten. Eta honen aurrean planto egitea erabaki zuen Bellonek. Bellon ukatzean, funtzionarioek izugarritzko jipoia eman zioten eta isolamendura eraman zuten.

Gertaera honen aurrean, bertan dauden beste euskal preso politikoei gose greba bat hastea erabaki zuten martxoaren 26an, Bellonek bizitakoa eta bere berririk ez izatea salatzeke. Baina, egun horretan bertan amaitutzat eman zuten gose greba, Arkaitz Bellon bere kideekin elkartu zutelako moduluan.

Muret Seysses espetxea: Martxoaren 4an Xabier Aranburuk eztabaida bat izan zuen funtzionario batekin, eta funtzionarioak mehatxu egin ziola esan zuen, baina, ez zen horrelakorik gertatu. Hori dela eta 7 egunetarako mitardera edo zigor ziegara eraman zuten. Bertan biluztu egin behar zela esan zioten. Aranburu ukatu egin zen eta indarrez biluztu zuten. 3 muturreko ere eman zizkioten. Aranburu jo bazuten ere, funtzionario batek esan zuen ondarrutarra izan zela bera heldu, bultzatu eta lurrera bota zuena, jotzen ere saiatu zela baina huts egin zuela. Horren ondorioz, 23 egun mitard jaso zituen.

Mitardera eraman zutenean biluzteko eta paperezko buzo bat jartzeko agindu zioten. Bera ukatu egin zen eta indarrez biluztu zuten. Paperezko buzoa eman zioten, baina, paperezkoa izanda berehala puskatu zen. 3 orduz horrela izan zuten, eta ondoren manta txiki bat eman zioten. Horrela egon zen igandera arte: manta txiki batekin tapatzen, dutxatu gabe, komuneko paperik gabe, komuna ataskatuta, hartzen duen medikaziorik gabe...

Mitardera sartu zutenean gose eta egarri greba hasi zuen. 5 egunen ondoren, edaten hasi zen. Medikak ordura arte ez zuen horren berri, nahiz eta Aranburuk komizioaren egunean bertan zuzendariari esan gose eta egarri greba hasiko zuela. Martxoaren 9an bisita izan zuen. Arropa jartzen utzi zioten bisitarako, eta funtzionario kaskodunek eraman zuten, atzean esposatuta. Bisita amaitzean berriro arropa kendu zioten.

Martxoaren 10ean arropa, boligrafo bat eta liburuak eman zizkioten. Komuneko paper zati bat ekarri zioten eta astelehenean gehiago ekarriko ziotela esan. Baldintzak aldatzen ari zirela ikusita Xabierrek eta Julen Mujikak (azken honek gose greba hasi zuen Aranbururen egoeraren berri izan zuenean) gose greba amaitutzat eman zuten, martxoaren 11n.

Puerto III espetxea: Xabier Rey preso isolamenduan bakartu dute urtarrietik Puerto III espetxean, funtzionarioekin izandako liskar baten ondotik. Oskar Barrerasek Reyren berririk ez zutela eta isolamenduan geratuko zela ikusita plantoa burutu zuen eta bera ere isolamendura eraman zuten. Baina, isolamenduko galerietan egonik ere, banatuta izan dituzte, elkarrekin komunikatu ezinik. Espetxe berean isolamenduko galerietan lehen fasean dauden Dani Pastor eta Jose Mari Etxeberria "Goierri"-rekin ere ez zuten inongo kontakturik.

Gauzak horrela, protesta moduan erabaki zuten, zenbaketetan ez altxatzea, funtzionarioek eskatzen diotenaren aurkakoa eginez. Aste guztian eman zuten protesta aurrera, inongo arazorik gabe, baina martxoaren 10era arte. Goizean funtzionario batek zutitzeko agindu zion eta Barrerasen ezezkua jasotzean, funtzionarioak lankideak deitu zituen. Ziegan sartu zitzaizkion funtzionarioak, besoa bihurrituz eta lepotik heldu zuten eta ukabilkada bat ere eman zioten bularrean. Modu honetan helduta beste ziega batera eraman zuten. Biluzarazi,

iraindu eta presionatu egin zuten bertan. Berriro jantzi eta 72.art ezarri zioten beste galeria horretan. Aipatzekoa da bere galerian ziren preso sozialen erre-akzioa. Bere oihuak entzutean zarataka hasi eta hurrengo goizean gose eta patio grebari ekin ziotelarik, bera itzuli artean.

Gertaera honen aurrean Barrerasek salaketa bat sartu du Puerto IIIko zaintza epaitegian. Eta Puerto III espetxean dauden euskal preso politikoek ere protesta moduan, martxoaren 19an plantoa egin zuten.

Miaketak

Otsaileko hilabetekarian aipatu bezala, miaketa zorrotzak izan zituzten Huelvan, Dueñasen, Foncalenten, Cordoban, baina, jakin dugu aste berean beste hainbat espetxean ere egin zituztela miaketa zorrotzak: **Badajozen, Soto del Realen, A Laman, Algecirasen, Topasen, Estremeran eta Villenan**. Puerto I espetxean ere egin zieten miaketa zorrotza, kasu honetan martzoko lehen astean.

Puerto IIIko presoak biluztu eta miatu egin dituzte aurrez aurreko bisitetara sartu aurretik.

ilkasketak

Cordobako espetxea: Zigor Orbek (egun Puerto I espetxean dago) Cordobako espetxea eta UNED salatu ditu, azterketa bat egin gabe utzi zutelako, eta orain berriro ordainarazi nahi dielako.

Lekualdatzeak

Martxoaren 4an, **Xabier Alegria** presoaren ama hil zen, eta martxoaren 6an hileta elizkizunetara ekarri zuten Puerto III espetxetik. Bertan ertzaintzak bai presoarekin eta senideekin izandako jarrera benetan salagarria izan zen. Baina, horrez gain, Puerto III espetxerako bueltako bidaia hasi aurretik Zaballan izan zuten egun batzuetan. **Zaballan**, zaintzako ziega batean egon zen. Momentu oro zainduta eduki ahal izateko kristal handi bat zuen ziega batean. Eta patiora, berriz, 3 edo 4 funtzionarioen zaintza behar zuen preso batekin ateratzen zuten.

EPPKren dinamika espetxeetan

Azken ostiraletan euskal preso politikoak dauden espetxe guztietan Euskal Pre-soak Euskal Herrira dinamika burutzen dute. Espetxe guztiek dinamika propioa dute. Espetxe gehienetan espetxearen janaria errefusatzeko dute, nahiz eta, bestelako ekimenak ere burutzen dituzten: baraua, Euskal presoak Euskal Herrira..

senide eta lagunak

Sakabanaketak eragindako istripua

Jaen II espetxean preso dagoen **Jabi Martinezen bi lagunak** istripu bat izan zuten, **martxoaren 24an**, Somosierra inguruan. Beste auto batek atzetik jo zituen Martinezen lagunak. Beraiek ondo daude, baina kotxea oso egoera txarrean gelditu zen. Usansolara taxiz bueltatu behar izan zuten bi lagunak. Istripu hau sakabanaketak eragin duen bigarrena da, 2013. urtean.



Miaketa senideei eta bisitekin arazoak

Sevilla II espetxea. Martxoaren 23an bisita normalak zituzten senide eta lagunak miatzen saiatu ziren funtzionarioak. Hiru senide eta lagun ukatu egin ziren miaketa hauek jasatera, zeren bisitak kristalarekin ziren, eta ez zuten inongo kontakturik izango presoekin. Beraz, hiru senide eta lagun bisitarik gabe

gelditu ziren. Zuzendariarekin bilkura eskatu zuten presoek, eta Madrileko agindua zela esan zieten.

Jaén II espetxea: Jaengo euskal preso politikoen senide batzuk aurrez aurreko bisita eta gero biluzarazi egin zituzten, batarekin, eta miaketan bata altxarazi zieten.

Puerto III espetxea: euskal preso politikoen senide eta lagunak miaketak izan dituzte bisitetara sartzera, baina, gainera, hamasei urtetik gorako gazteei ere egin dizkiete miaketak.

Villenako espetxea: arazoak dituzte bisitekin, arkuan pasatzera zarata ateratzen, eta gauzak kutxatila gordetzeko aukerarik eman gabe, zuze-nean bisitarik gabe utzi dituztelako. Zenbait kasutan hilabete batzuetarako galdu dituzte bisitak, baina, badira betirako galdu dutenak ere.

Fleury espetxea: Xabier Lopez Peña bisitatzera joan ziren senide batzuk bisitarik gabe itzuli behar izan zuten, jada eskatuta zegoen bisita eskatu gabe zegoela esan zitelako.

Muret Seysses espetxea : Juan Carlos Estevez presoaren senide eta lagunek arazoak dituzte espetxean bisitak egin ahal izateko, larunbatetan eskatutakoak ukatu egin dizkietelako, eta astean zehar egin behar zituztelako bisitak. Horrek zenbait pertsonak bisita horietara joan ezin izana suposatzen du.

Puerto III espetxean: Xabier Garcia Gazteluren semea bizikidetzako aurrez aurreko bisita egiteko aukera kendu diote hamar urte egin berri dituenen, eta orain arte 11 urteak bete arte uzten zieten bisita hauek mantentzen.

A Lamako espetxea: Luis Mariñelaren senide bat bisitarik gabe geratu zen NANA iraungita zuelako.

Long Lartin espetxea, Ingalaterra: Iñaki Lerinen bikoteak eta hiru seme-alabek kotxean, Ingalaterrara joateko hegazkina hartzea aireportura bidean zihorazela, jakin zuten Iñaki espetxez lekualdatu zutela. Honen berri beste preso politiko baten senideei esker izan zuten, zeren ordu batzuk lehenago soilik konfirmatu zuten bisita espetxearekin; hauek lekualdatzearen inguruko inongo berriarik eman ez zuelarik. Hegazkinaren txartelak galdu zituzten, jada ezin baitzituzten aldatu eta dirua ere ez baitzieten itzuli.

askatasunak

Alex Uriarte (Gasteiz), martxoaren 5ean. Behin behineko askatasunean, epaiketaren zain. Konfinatua

Juan Ramón Rojo (Irun) martxoaren 8an. Zigorra betea.

Mattin Olzomendi (Ziburu), martxoaren 11n. Baldintzapeko askatasunean.

Pello Olano (Lizartza), martxoaren 11n. 15.000 euroko bermea ordainduta.

Joseba Vizan (Basauri), martxoaren 19an. Brasilen, behin-behineko askatasunean

Argi Perurena (Hendaia), martxoaren 25ean. Baldintzapeko askatasunean. Parisen dago konfinatua.

lekualdatzeak

destinu aldaketak

ESPANIAR ESTATUA

Aingeru Cardaño (Bilbo), de Soto del Real a Ocaña l.

Iñaki Imaz (Donostia), Soto del Real-etik Estremera-ra.

Oier Goitia (Gernika), Navalcarnero-tik Villena-ra.

Juan Carlos Estevez (Donostia), Muret Seysses-etik Soto del Real-era.

FRANTZIAR ESTATUA

Ekaitz Agirre (Donostia), Clairvaux-etik Fresnes-era. Fresnes-etik Soto del Real-era.

diligencias

ESTADO ESPAÑOL

Zigor Bravo (Gasteiz), Dueñas-etik Valdemoro-ra.

Arkaitz Goikoetxea (Barakaldo), Villena-tik Aranjuez-era..

ESTADO FRANCÉS

Eider Uruburu (Bilbo), Lyon Corbas-etik Fleury-ra.

Ibon Goieaskoetxea (Gernika), Villefranche-sur-Saône-tik Fleury-ra.

Ander Mujika (Donostia), La Santé-tik Bourg en Bresse-ra.

Aitzol Iriondo (Donostia), La Santé-tik Bois d'Arcy-ra.

Oihan Barandalla (Iruñea), Fleury-tik Nanterre-ra.

Jurdan Martitegi (Durango), Fleury-tik Nanterre-ra.

Cristina Goirizelaia (Arrasate), estatu espainiarretik Bapaume-ra.

hilabeteko gaia

Eta...nola ibili senideok ere egi inklusibo baterantz?



Nagore L. de Luzuriaga
Psikologoa eta Etxerateko kidea

“Senide zein lagun bakoitzaren atzean istorio bat dago, memoria bat, oraindik estalia, ukatua edo desitxuratua.

Bidaiaiko gastuak **elkarbanatu**, furgonetetako edo eta autobusetako elkarriketak, bidaia luzerako prestatutako patata tortilla. Azkeneko aurrez-aurrekoa egitera **itxaron** Euskal Herrira bueltatzeko, amorrua konpartitu miaketarekin tematu direla eta besarkatzeko aukera beste behin ere galdu duzulako, zu bezalako beste 16 bidaiatik sekula ez direla itzuli jakitea eta ziurtasunez zuk zeuk egin ahalko duzun **ezin jakitea**. **Ezin bidaiatzea** 750km joateko eta beste horrenbeste bueltatzeko, adinak eta errepidean eman dituzun hogeitau urte pasatxok zure osasuna zapuztu dutelako, hilabeteko aurrekontua doitzea tren txarterlerako iritsi dadin, telefonoaren deia **zain bizitzea**, edo eta oportetan zaudela bisita desatseginak jasotzea edo eta errepide kontrol batean. Isiltasun urduri batean eta alerta egoera jarrai batean bizitzea Frantzia jazotako atxiloten berri irratiz jakiteko, bizitza espektatibei eta ilusioei **uko egin behar izatea** zure nebari askatasun data kentzearekin batera zuri ere kendu dizutelako. Ospitalera eramango duen

zaintza polizialagatik **kezkatua egotea**, ezin lorik hartzea azkeneko deian elkarriketa apenas jarraitzeko ahalmena zuelako, **jakitea** zure alaba torturatzeak aukera dagoela goizaldeko hiruretan etxetik eraman dutenean familia osoa destatu ostean, hainbeste denbora eta gero nola egongo ote den leku ezezagun eta urruti irudikatzen duzun horretan. Zure alabari aitarekin zergatik ez dioten denbora gehiago egoten uzten **azaltzen saiatzea** eta bere pelutxea armairuan utzi behar izateko arrazoia, edo eta famili liburua ahaztu zenuen aldi hura bisita egin gabe geratu zinela. Bizi artean etxean ikusiko ez duzunaren **beldurrarekin bizitzea** hainbeste urte eta gero, argazkiari begira geratu bizitza kendu zioten balak ustekbeko istripu bat izan ez zirela jakinda, gose greban bi aste daramanean nola egongo den imajinatzea, hurrengo asterako paketea prestatzea, edo eta segurtasun indarreko kide gisa identifikatzen diren batzuk errepidetik bortizki ateratzen saiatu eta gero kotxea kontrolpean izaten saiatzea...

Urte hauetan zehar espetxe politikak behartuta, beste hainbatek bezala, kilometroak, berriketak, bizipenak eta tuper-etako bazkaria konpartitzeko aukera izan dut hainbat seniderekin. Senide horietako bakoitza, **beraien bizitzaren idiosinkrasiekin biziraun duten pertsonak dira. Duintasunez beteriko pertsonak, bizipen eta errealtate oso gogorren aurrean erresistenteak** izan direnak, beraien baliabide propio zein **elkartasun eta maitasun dosi handiekin** eta baita **umorearekin ere**, aurrera egiten dutenak, askotariko zailtasun eta ez ohiko neurriak gaindituz. Etenik gabe salatzen eta bere amaiera aldarrikatzen duten, **salbuespenezko politika** bidegabe baten biktima. Harro nago kolektibo honen parte izateagatik, nahiz eta ahalik eta azkarren gutako bakoitza bertako kide izateari uztea espero dudana... horrek ez du ahanztura inplikatzeko, **egiaren eraikuntzarako bide oso bat baizik.**

“Eredu inklusibo bat nahi badugu, denok hitz egin behar dugulako. Lortu nahi dugun egi inklusibo horretan, ezin direlako errepresaliatuen senideak falta, ezin da gure memoria falta”.

Kontua da, kide naizen Elkartea osatzen dugun pertsonontzat, “Euskal Gatazka” deitua -ez denengatik- izan dena ez dela oharkabea igaro eta **ugariak eta askotarikoak** izan direla **haren ondorioak** gure bizitzetan. Bizipen gogorrak, konplexuak, eta kasu askotan, zailak konpartitzeko, eta batzuetan arriskutsuak ere komentatzeko. Etixerat-eko familia anitz eta

handi hau osatzen duen **senide zein lagun bakoitzaren atzean istorio bat dago**, memoria bat, oraindik mingarria den egiaren zati bat, herri honetako klase-politikoaren eta komunikabideen oraindik ere parte handiegi batek, **estali, ukatzen edo desitxuratzen duena**; errealtate hori publikoki aipatzen bada, sarritan zilegitzeko delarik, ezkutatzen saiatzen ez diren interes politiko batzuen izenean, eta inongo ondoriorik gabeko adierazpenak noski.

Orain dela urte gehiegitik eman behar du Etixerat-ek errealtate honen berri, **gure eta geure senide errepresaliatuen eskubideen urraketen salaketa**; zapi baten atzean agure bihurtu den salaketa. **Salaketa eta lana**, senide eta lagunek eskaintzen duten **elkartasun** horrekin argiztatua, irribarre moduan, besarkaden beroaz, gidari bolondresen ahaleginez, mobilizatzen diren pertsonen, entzuketa hurbilez, laguntza ekonomikoz... Azken batean, bere errepresaliatuak **ahazten ez dituen** eta beraien alde borrokatzen duen **herri bat**.

Badira egun batzuk Iruñean zein Bilbon egin zen Bake Prozesua indartzeko Foro Sozialean parte hartzeko aukera izan genuela. Eragile eta aktore sozial anitz batu zituen hitzorduak, nazioarteko aditu askoren ahotik. **Munduko beste txoko batzuetan erabilitako formulak ezagutzeko** balio izan zitzaigun: ikasitako irakaspenak, zerk balio izan zuen eta zerk ez. Geuk hemen, etxean egingo dugun **moduaren inguruan erreflexionatzeko** balio izan zitzaigun; zer den behar duguna, **zein mekanismo jarri beharko genituzkeen martxan pentsatzeko**. Eta nola ez, zein mekanismo desaktibatu behar diren berehalakoan. Garrantzitsua da bestelako esperientziak ezagutzea, baina **testuinguruari atxikitutako eredu propio bat** bilatu behar dugu. Eta testuinguruari atxiki zaion

eredu propio baten sortze lan horretan **errepresaliatuon senideok ere badugu zein ekarpen egin eta zein iritzi eman. Eredu inklusibo** bat nahi badugu, denok hitz egin behar dugulako. Lortu nahi dugun egi inklusibo horretan, ezin direlako erre-presaliatuen senideak falta, ezin da gure memoria falta, ezta egoera gordin horren lekukotza, pairatzen ari garen estatuko bortizkeria hori. Foroan gure herriarentzat, herriarrentzako, bere historiarentzako... garrantzitsuak diren gaiak hitz egin ziren. **Gatazkaren zein bere ondorioen gainditzera, eta jendarte demokratikoago eta bidezkoago baterantz aurrera pausak emateko oinarritzko gaiak;** geure eta gure senideen eskubideak errespetatuak izango diren jendarte bat. Etxerat-ek horren alde apustu egiten du.

“Biktimatzat, kalteak, lesio fisiko zein psikologikoak barne, sufrimendu emozionala, finantza galera edo bere oinarritzko eskubideen urritze funtsezko bat izan duten pertsonak hartzen dira, estatu kideetan egungo legeri penala urratzen duen ekimenen edo beren omisioaren ondorioz, boterearen gehiegikeria gaitzezten duena barne”.

(NBEn Batzar Orokorrak)

Otsailean burutu genuen Batzar Nazionalean, gai hauekiko lehenengo hurbilpen bat egin genuen. **Justizia Transizionala** deitzen zaion horretan urrat-sak ematea ezinbestekoa zela esaten genuen; eskubideak urratuak diren eta biolentzia dagoen eszenario batetik, **bake justu eta iraunkor** batetara eramango gaituen erreminta da, **ez errepikatzearen bermea** izango duena.

Horretarako ezinbesteko urratsa **aitortza da**. Herri honetan gatazka luze batek **pertsona askorengan eragin duen eta eragiten duen sufrimenduaren aitortza**, bai jendartearengandik eta baita agintari eta instituzioengandik ere. **Minaren inongo sailkapenik zein konparaketarik** ez da egin behar, besterik gabe, jasandako sufrimendu hori, zein egun jasaten duguna aitortu behar da, hori da lehendabiziko pausua. Munduko beste leku batzuetan **sufrimenduaren berdintze morala** deitu izan dena, egoera ezberdinak zein biktima ezberdinen gaiari heldu ahal izateko.

Berarekiko egin izan den erabilpen interesatua dela eta, **biktima kontzeptuak** eztabaida eta nolabaiteko arbuizatea sortzen duela jakinda, **esanahia, eta gatazka politiko zein eskubideen urraketa larrien testuinguru batean duen garrantzia** argitzeak merezi du. “Boterearen gehiegikeria eta delituen biktimentzako justiziaren oinarrien inguruko Deklarazioak” bere 21 artikulutan, NBEn Batzar Orokorrak 1985eko azaroko 40/34 Ebazpenean zera zioen: “Biktimatzat, kalteak, lesio fisiko zein psikologikoak barne, sufrimendu emozionala, finantza galera edo bere oinarritzko eskubideen urritze funtsezko bat izan duten pertsonak hartzen dira, estatu kideetan egungo legeri penala urratzen duen ekimenen edo



bereren omisioaren ondorioz, boterearen gehiegikeria gaitzezen duena barne”.

Gure kasuan, errepresaliatu politiko-koen senideok lehen pertsonan ezagutzen dugu zer den sufrimendua; guk geuk eta gure senideek jasaten duten salbuespenezko espetxe politika baten biktima baikara; iheslari edo deportatuen egoeraren biktima, edo zenbait kasutan baita biktima bizitza kendu zieten senide bezala, edo eta errepideetan bizia utzitako senide gisa. **Biktimak**, pertsona bezala, **gatazka baten**

“Egiaren Batzordea, mekanismo extrajudiziala da, iraganean gertaturikoaren inguruan narratiba berri bat eraikitzeko, kontratu sozial berri bat jendearteari esperientzia demokratiko bateruntz urratsak ematea ahalbidetuko diona”.

ondorioz gure eta gure senideen eskubideak urratuak izan direlako. Ez dugu biktimismo motibazio batekin esaten, ezta biktima identitatea sustatzeko asmoa dugulako, **gure eskubideak errespetatuak izan daitezela exijitzeko modu bezala baizik.** Biktimaren izendapen honek estigmatik zein jarrera pasiboetatik aldentzeko asmoa du, erresistentzia pasiborako modu bat izan nahi du, eskubide zibil eta politiko-koen ariketa modukoa, inpunitatea eta desmemoria ekiditeko. Ez bakarrik gure burua sufrimenduan kokatuz, baizik eta bereziki aktore sozial gisa kokatuz -beraz eskubide-dun subjektuak-, justizia egin dadin bultzatuz, eragindako kalteak osatu daitezzen, eta eskubideen urraketan errepikapenik emango ez denaren bermearekin.

Aitortza eta ezagupena beraz, ezinbestekoak dira egiaren eta memoriaren aurrera egiteko; egia askoren bilduma bat izango den, memoria inklusibo bat eta egia oso bat, **egi ezberdinen batura** izango dena. Hauek eman beharreko pasuak dira **justizia, konponketa eta bizikidetz**a egoera batera heltzea posible izateko.

Egiaren eraikuntzak eta **memoriaren berreskurapenak**, gertakarien argipen bat beharrezkoa du: ¿zer gertatu zen? ¿zergatik? **Herrialdearen historia hurbilaren kontakizuna** da, sinesgarria izan behar du eta egi publiko batean oinarritu behar du. Hau justiziaren lehenbiziko lana izan behar harko litzateke. Horretarako hain zuzen ere, munduko beste gatazka batzuetan **Egiaren Batzordea** sortu izan da. Estatuak berak edo buru den taldeak transizioan sortzen duen mekanismo extrajudiziala da, iraganean gertaturikoaren inguruan **narratiba berri bat eraikitzeko, kontratu sozial berri bat**, jendearteari esperientzia demokratiko bateruntz urratsak ematea ahalbidetuko diona. Horrela izanda, egia-untz

ibiltzeko mekanismo interesgarria izan daiteke gure herrian ere.

Justizia kontzeptuari dagokionez, jendartea gainditzeko saiatzen ari den iraganeko zigorgabeko bidegabekerien jarrai-



pen judiziala egitea da. Eta **biktimen erreparazioari** dagokionez, jendearteak errepresio egoera baten aurrean eman ahal duen justizia erantzuna da, eta aldi berean sufrimendua arintzeko eta biktimen eskubideak aitortzeko modu bat ere da. Hurrengo puntuak barne biltzen ditu: lehengoratzea, kalte-ordainak, erreabilitazioa, asetzea eta berriz **ez errepikatzen bermea**.

Zentzu horretan aipatzen genuen Batzarrean, aitortza hau bilatzeko eta exijitzeko bidean, **Etxeratek bakea, bizikidetza eta memoriaren inguruan antolatzen diren ekimen ezberdinetan** parte hartuko duela. Etxerat-ek egiten ez badu, gugatik

beste inork ez duela egingo pentsatzen baitugu.

“Erreparazioa, jendearteak errepresio egoera baten aurrean eman ahal duen justizia erantzuna da; aldi berean sufrimendua arintzeko eta biktimen eskubideak aitortzeko modu bat ere barne biltzen ditu: lehengoratzea, kalte-ordainak, erreabilitazioa, asetzea eta berriz ez errepikatzen bermea”.

